

## **JOERA SEXUALA: GAZTEENTZAKO GIDALIBURUA.**

Esku artean duzun gidaliburu honek giza joera sexual askotarikoak ezagutzen laguntzeko tresna izan nahi du. Era berean, gogoetarako lagungarria ere izan nahi du, izan ere, gizarteak joera horiek guztiak modu berean onar ditzan egin behar diren aldaketak denok bultzatu behar baititugu, bai eta gazteok ere.

Gidaliburu honen bitartez, joera sexuala dela-eta inor ez baztertzeko portaerak bultzatu nahi ditugu zuon, gazteenon artean, eta aldi berean laguntza eskaini nahi diegu heziketan nagusi den eredu sexuala segitzen ez dutelako inseguru sentitzen direnei.

Gay, lesbiana, bisexual edo transexuala bazara, zure sentimendu eta desioek sortzen dizkizuten galderetarako erantzunak eskaini nahi dizkizugu, zeure burua ezagutu eta onartu ahal izan dezazun eta zure sexualitatea atseginez bizi eta ager dezazun.

Nork bere joera sexuala, edozein dela ere, askatasunez bizi eta agertu ahal izateko guneak zabalduz joango gara.

Hurrengo gaiei buruzko argibideak aurkituko dituzu gidaliburu honetan:

- a. Zer da joera sexuala?
- b. Zer da homofobia? Zeintzuk dira homosexualitatearekiko aurreiritziak?
- c. Homosexualitatea eta transexualitatea: bi gertakari desberdin.
- d. Nola eraiki gizarte askotarikoagoa eta toleranteagoa?
- e. Zer egin dezaket lagun batek gay edo lesbiana dela esaten didanean?
- f. Nola esango dut gay edo lesbiana naizela?
- g. Lagungarri izan daitezkeen hainbat baliabide.

### **a. Zer da joera sexuala?**

Joera sexuala beste pertsonetikiko sentitzen dugun erakarpen afektiboa da. Beraz, hurrengo hauek dira **joera sexualak**:

- Joera sexual **homosexuala**: erakarpena, desioa, maitemina, maitasuna... sentitzea, sexu bereko pertsonetikiko.
- Joera sexual **heterosexuala**: erakarpena, desioa, maitemina, maitasuna... sentitzea, beste sexuko pertsonetikiko.
- Joera sexual **bisexuala**: erakarpena, desioa, maitemina, maitasuna... sentitzea, sexu bietako pertsonetikiko.

Orain arte ez da azalpen guztiz argi eta erabatekorik aurkitu esplikatzeko nola edo zergatik bideratzen den desioa heterosexualiterantz, homosexualiterantz edo bisexualiterantz. Horren gaineko teoria ugari dago: psikologikoak, endokrinologikoak, nahiz genetikoak. Baina bat bera ere ez da zientifikoki eta sinesgarriro frogatu. Are gehiago, gure ustez, azalpenak baleude ere, ezingo lituzkete ez homosexualitate guztiak ez heterosexual izateko modu guztiak argitu.

Bai homosexualitatea bai heterosexualitatea gure sexualitatearen parte dira. Hortaz, pertsona batentzat heterosexuala izatea guztiz berezkoa den bezalaxe gerta daiteke beste batentzat homosexuala izatea.

Joera sexuala oso sentimendu sakon eta funtsezkoa da, eta pertsona gehienek kasuan bizipen oso egonkorra da; behin ezarriz gero, bizitza osoan berdin jarraitzen du normalean. Joera sexuala ez da gurasoengandik seme-alabengana transmititzen.

Gure joera sexuala haurtzaroan hasten da sortzen eta gehien bat nerabezaroan garatzen dugu; bizitzaren garai horretan jabetzen da jende gehiena norantz bideratzen den bere desio sexuala. Nolanahi ere, joera sexual homosexuala edo bisexuala helduaroan deskubritzen duen jendea ere badago.

Joera sexualaren eraikitze prozesua oso antzekoa da heterosexualengan eta homosexualengan; desioa, erakarpena, maitemina, plazer sexuala... berberak dira heterosexualentzat, homosexualentzat eta lesbianentzat.

Alabaina, joera sexuala eraikitzeko prozesua berbera izan arren, ez da gauza bera gertatzen joera horren onespenezko prozesuarekin. Izan ere, bizipen homosexuala isildu eta gaitzesten duen gizartean bizi gara. Hortaz, gizartearen jokabidea ez da berdina homosexualekin edo heterosexualekin. Horrela, bada, pertsona bat erakarpen homosexuala sumatzen hasten denean, hori ezkutatzeko jokabidea izaten da nagusi, mespretxatu eta baztertuko duten beldurrez. Zenbait nerabek, adibidez, larrimenez, bakardadez eta beldurrez bizi dute euren homosexualitatearen deskubrimendua, eta sarritan ez dute norekin hitz egin gaiaz. Maiteminak, desioak, maitasunak... poz handia ematen diete, baina barruan sentitzen duten horrek ez du erreferente positiborik familiarengandik, lagunengandik, eskolan... hartzen duten informazioan; oro har, heterosexualentzat hartzen dituzte, hori espero dute. Oraindik ere, gure gizartean gay eta lesbianek zailagoak dituzte gauzak.

Gay edo lesbiana diren gazteek baino sentitzen ez duten barne gatazka hori egon badago, eta homofobia eta heterozentrismoa indarrean dauden bitartean bere horretan jarraituko du. Horren ondorioz, gazte heterosexualen eta homosexualen bilakaera ez da berdina izango.

Norberaren homosexualitatea, denok dakigunez, ez da gauetik goizera deskubritzen. Bere buruaren ezagutza prozesuaren ondoren heltzen da jendea homosexual izatera, eta prozesu horrek etapa hauek izan ohi ditu: desberdintasunaren sentimendua, desberdintasunaren aurreko harridura, giza harremanak sortzea, norberaren joera onartzea.

## **b. Zer da homofobia? Zeintzuk dira homosexualitatearekiko aurreiritziak?**

Aurreiritzia definitzeko, desberdinarekiko beldur kontrolaezina dela esan dezakegu. Eta beldur horren eraginez, desberdin antzematen diren pertsonetikiko etsaitasuneko jokamoldeak, iraingarriak, baztergarriak edo oldarkorrak ager daitezke.

**Aurreiritziak** zenbait pertsonen gainean ditugun **ideia faltsuak** dira, pertsona horiek talde jakin bateko kideak direlako besterik gabe. Ideia horiek, gehienetan, ez dira bat etorriko aurrez juzkatzen ari garen pertsona horren benetako izaerarekin.

Aurreiritzi horiek modu askotara adieraz eta ager daitezke: irainak, txantxak, txisteak, isekak, lege bazterketak eta, kasurik larrienetan, erasoak. Gay eta lesbianen kolektiboa aurreiritzi askoren jomuga izaten da eta noiznahi entzun ahal dugu, esaterako: “gayak maritxuak eta promiskuoak dira”, edo “lesbianek gorroto dituzte gizonezkoak, zaputzak eta bereziak dira”.

Oso umetatik hasten gara aurreiritziak gureganatzen eta helduarora heltzerakoan erabat natural eta berezkoak iruditzen zaizkigu. Jende askok benetan uste du gay eta lesbianez duen iritzia ez dela faltsua eta guztiz bat datorrela pertsona homosexualen izaerarekin. Horrela, aurreiritzien eraginez memoria hautakorra garatzen dugu, eta lesbiana baten irudiarekin bat datorren emakume lesbiana baino ez dugu ikusten (gizon itxurakoa, lodikotea, narrasa...) eta sekula ez dugu pentsatuko lesbiana denik emakume ederra, ondo apaindua, ama...

Gay eta lesbianek, alabaina, ez dute talde homogenea osotzen; gay eta lesbiana izateko modu asko dago, egon, heterosexuala izateko modu ugari dagoen modu berean.

Aurreiritziak gizartearen alor eta maila guztietan agertzen dira: aberats nahiz pobreen artean, gazte nahiz helduengan, hirietan zein landa aldeetan.

Homosexualitatearekiko aurreiritzirik handiena **heterosexualitatea unibertsa dela sinistea da**, hau da, kontrakoa frogatzen ez diguten bitartean, jende guztia heterosexuala dela pentsatzen dugu. Uste horrekin hazten gara eta uste horrekin bizitzen.

Aurreiritzia beldur irrazional, nazka, arbuio anker, mugarik gabeko gorroto bilakatzen denean, **homofobia** dela esango dugu. Homofobia intolerantzia ideologikoak sortua da eta, zenbait kasutan, nahasmen psikologikoen ondorio.

Nolanahi ere, homosexualitatearen kontrako aurreiritziaz hezi diren pertsona guztiak ez dira homofobo bilakatzen. Haietako askok aurreiritziak gairatzen dituzte, beste batzuek horiei eusten diete, eta beste batzuk, gutxienak, homofobo bilakatzen dira, eta gay eta lesbianeiei zein gizarteari arazo larriak sortzen dizkiete.

Erraz irudika dezakegu zer-nolako eragina izango duen aurreiritziak horren jomuga den pertsonarengan. Izan ere, gudan eragina dute guri buruz zabaltzen diren definizio eta iritziek, eta ulergarria da, beraz, zenbait gay edo lesbianek azkenean “anormalak” edo “bereziak” direla sinistea. Normalean, gay eta lesbianek gairatzen dituzte oztopo horiek, beti ere behar duten laguntzarekin: familiarena, lagunena, hezitzaileena...

### **c. Homosexualitatea eta transexualitatea: bi gertakari desberdin.**

Askotan, nahastu egiten dira homosexualitatea, transexualitatea eta trabestismoa, baina bereizi beharreko hiru errealitate dira.

Nahasmena sortzen da **sexu biologikoa, genero nortasuna, joera sexuala eta jokaera sexuala** kontzeptuak ez direlako behar bezala bereizten.

- **Sexu biologikoa** gizonezkoak eta emakumezkoak bereizten dituzten fisiologia-ezaugarriei dagokie.
- **Genero nortasuna** esaten zaio pertsona batek bere sexu biologikoarekiko sentitzen duen barne identifikazioari nahiz identifikazio ezari. Transexualitatea hemen kokatu behar dugu.
- **Joera sexuala**, esan dugun bezala, gure sexu bereko nahiz beste sexuko pertsonetikiko sentitzen dugun sexu eta sentimendu erakarpena da. Joera homosexuala, heterosexuala edo bisexuala izan daiteke.
- **Jokaera sexualaz** hitz egitean, pertsona batek bizi dituen gertakari sexualei ari gara.

Pertsona baten sexu biologikoa bat ez datorrenean sexu psikologikoarekin, hau da, pertsona hori identifikatzen den sexuarekin bat ez datorrenean, transexualitateaz ari gara.

Transexualite maskulinoa esaten zaio sexu fisikoa emakumezkoa izanik, pertsona horrek bere burua gizonezko sexuarekin identifikatzen duenean, eta transexualitate femeninoa, pertsonak bere burua emakume sentitzen duenean sexu fisikoa gizonezkoa izan arren.

Ikuspuntu mediko zein psikologikotik, transexualitatea ez da arazo psikiatrikotzat jotzen, hots, ez da buru nahasmena, ez baitio eragiten pertsona batek bere kabuz jarduteko eta erabakitzeko duen gaitasunari. Arrotza, desegokia zaien itxura fisikoa dutelako sufritzen ohi dute transexualek; nolabait esateko, naturak jukutria gaiztoa egin diela sentitzen dute.

Homosexualak, ordea, beren sexu biologikoarekin identifikatzen dira: lesbianak emakume sentitzen dira, emakume ikusten dute beren burua, eta gayek, berriz, gizon.

Beste alde batetik, transexualak ez dira halabeharrez heterosexualak, gay edo lesbiana izan daitezke, eta sexu-organoak berregokitzeko ebakuntza egiteak ez die joera sexuala aldatuko. Esaterako, gizonek erakartzen duten transexual maskulinoak desio homosexual bera sentituko du ebakuntzaren ondoren ere.

Azkenik, transexualitatearen eta trabestismoaren arteko bereizketa egin behar da. Trabestiek badute sexu biologikoarekin bat datorren nortasun sexuala, baina beste sexukoei dagokien janzkera mota erabiltzen dute. Trabestitzen direnek fantasia bat gauzatzea edo estimulazio erotikoa dute helburu. Transexuala trabestia izan daiteke, edo gerta daiteke ez izatea, batak ez du halabeharrez bestea ekartzen.

#### **d. Nola eraiki gizarte askotarikoagoa eta toleranteagoa?**

Gizarteak, oro har, sexualitateari dagokionean, aniztasuna eta batak bestea errespetatzea lortzeko bidea egin behar du. Aurreiritziak ikasi egiten ditugu, eta ikasketa horretan atzera egin daiteke. Aurreiritziak alde batera uzten ikasi daiteke, eta era berean gay edota lesbianeiei buruzko iritzi edo ideia oker eta faltsuak kentzen erakutsi dezakegu.

Garbi izan behar dugu guztiok nonahi daudela homosexualak, aitortzen ez badute ere. Komeni da pentsatzen hasia beharbada nire lagun mina gay edo lesbiana izan daitekeela, eta ideia hori kontuan hartuta hitz egiten eta jokatzeko hasia.

Horrela, poliki-poliki, guztiok sexualitatea atseginez bizitzeko harremanak sortzen joango gara.

Den-denok dugu lan horretan geure garrantzia.

### **e. Zer egin dezaket lagun batek gay edo lesbiana dela esaten didanean?**

Baten batek bere homosexualitatearen berri ematen badizu, zugar konfiantza duen seinale da. Ez da erraza izaten, batzuetan, berri hori jasotzea, sarritan ez baitugu jakiten zer esan edo zer egin. Iradokizun batzuk egin nahi dizkizugu horri buruz:

- Eskertu zugar izan duen konfiantza eta esaiotzu berdin jokatuko duzula berarekin.
- Ez egin juzkurik. Homosexualitatea onartzen ez duen sinesmen batekoa bazara, bilatu une lasaiak zure lagunarekin ideia horiei buruz eztabaidatzeko.
- Errespetatu isilpean esan izana, eta izan zaitez diskretua. Bere homosexualitatearen berri beste inori eman nahi badio, berak erabakiko du noiz den une egokia.
- Esaiotzu zuretzat pertsona bera izaten jarraitzen duela, eta kontatutakok ez duela harremanak zertan aldatu.
- Besarkada bat, musu bat, txantxa bat... horrek adierazi diezaioke ez diozula beldurrik. Umore pixka bat ez dator batere gaizki horrelakoetan.
- Ez kezkatu zure laguna erakartzen baduzu eta hark zu ez ordea. Saia zaitez erakartzen ez zaituen beste sexuko edonor balitz bezala tratatzen.
- Zalantzarik baduzu edo beste edozer argitu nahi izanez gero, Aldartera jo dezakezu, homosexualitatearen eta lesbianismoaren inguruko gaiez informazio gehiago eskuratzeko. Ondo legoke zure lagunarekin hurbiltzea, bakandurik senti ez dadin.

### **f. Nola esango dut gay edo lesbiana naizela?**

Kontuan har itzazu ondoko hauek zure joera sexuala senitartekoei eta lagunei jakinarazi aurretik:

- ❖ Ziur al zaude zure joera sexualaz? Ez hitz egin horretaz, zalantzarik baduzu. Zalantza horiek zugarako konfiantza murriztuko dute.
- ❖ Eroso sentitzen al zara zure sexualitatearekin? Errudun, triste edo uzkur sentitzen ari bazara, hobe duzu zure joeraren berri jakinarazteko erabakia atzeratzea; ziur bazaude egoera kontatuko diozun horrengandik laguntza eta babesa jasoko dituzula, orduan bai.
- ❖ Nola ikusten dute homosexualitatea zure ingurukoek? Lenenik eta behin gaiaren aurrean jarrera baikorra azalduko dutela uste duzun lagunei esatea komeni da.

- ❖ Ba al duzu beste inoren laguntzarik? Erreakzio oso ezkorra jasotzen baduzu, ondo etortzen da talde baten laguntza izatea. Gay eta lesbianen taldeetara jo dezakezu horretarako.
- ❖ Nahiko dakizu homosexualitateari buruz? Gida honetan azaltzen diren moduko ezagutzak izatea komenigarria da. Adiskideei eta gurasoei "normala" eta "arauzkoa" bereizten lagunduko diezu, zuk dakizuna erakutsita. Gay, lesbiana eta haien senitartekoei laguntzeko zentroyen batera jo dezakezu, hala nahi izanez gero informazioa jaso eta beste homosexual batzuen senitarteko edo lagunekin harremanetan jar daitezten.
- ❖ Pazientziarik baduzu? Senitartekoei eta lagunek denbora beharko dute agian informazio hori barneratzeko; hilabete batzuk izan daitezke, edo agian bi urte.
- ❖ Zeuk hartu al duzu erabakia? Ez duzu derrigorrez zure joera sexuala jakinarazi beharrik. Zeure burua prest ikusten duzunean eta horrekin zerbait lortuko duzula pentsatzen duzunean jakinarazi besteei.

### **g. Lagungarri izan daitezkeen hainbat baliabide.**

Konturatzen gara gida hau ez dela perfektua, bere laburragatik, eta ziurrenik informazio gehiago edota profesionalen laguntza beharko duzu, haiekin hitz egin eta orientabide batzuk jasotzeko. Hemen dituzu Aldartek eskaintzen dituen zerbitzuak:

Aldarte. Gay, lesbiana eta transexualentzako laguntza zentroa.

ALDARTEn hauek aurkituko dituzu:

- Beste gay eta lesbiana batzuk ezagutzeko lekua.
- Abegi eta laguntzarako taldea.
- Aisialdiko jarduerak: mendia, zinea, futbitoa...
- Kontsulta psikologikoa, zure joera sexualari buruzko zalantzak argitzeko.
- Transexualentzako laguntza eta orientabideak.
- Informazio sexologikoa, sexu seguruari buruzko tailerrak, HIESari eta transmisio sexualezko beste gaixotasun batzuei buruzko informazioa.
- Institutuan edo Unibertsitatean egin beharreko lanei begira informazioa eta aholkularitza jasotzeko Dokumentazio Zentroa, bai eta bideoteka, liburutegia eta hemeroteka.
- Tertuliak eta bilerak egiteko taldeak, zure esperientziaren antzekoa bizitzen ari direnekin egon ahal izateko.
- Gay, lesbiana eta transexualen senitarteko eta adiskideei laguntzeko taldea.

[www.aldarte.org](http://www.aldarte.org)

[aldarte@aldarte.org](mailto:aldarte@aldarte.org)

Berastegi kalea 5-5.a. 8-9 departamentua. 48003 Bilbo. 944237296